

## **ARRAZAKERIAREN ETA XENOFIARIEN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA. ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Nazio Batuek martxoaren 21a aukeratu dute Xenofobiaren eta Arrazakeriaren aurkako Nazioarteko Eguna izateko. Data hori hautatu dute, izan ere, egun horretan Hegoafrikako poliziak Apartheida salatzen ari ziren 69 pertsona beltz hil zituelako.

Kultura aniztasuna errealitate bat da gaur egun: gure hiri guztietan presente dago eta ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren garapenean laguntzen du. Aniztasunak gizarte inklusiboa sortzen laguntzen du, alegia, elkarbizitzan eta elkarrenganako errespetuan oinarritutako gizartea, bazterkeria edota ikusezintasuna onartuko ez dituen.

Basauriko Udala udalerriko etorkinen elkarteekin batera ari da lanean Kulturartekotasunaren Mahaian. Solidaridad Euskalmon, Imdoukal Euskadi eta Mujeres en la Diversidad elkarteek, herritarrek... Guztioi dagokigu gertu-gertuko jarrera izatea, geure herrian egunero-egunero elkarbizitza eraikitzen joatea.

Alerta piztu edota beldurra zein mespretxua dakarten mezuei aurre egiteko bidezko politikak aldarrikatu nahi ditugu, etorkinek gizarteari ekarritako alderdi on guztiak aintzat hartuko dituztenak. Egon badaude oraindik ere arrazakeria eta xenofobia txokoak. Horien aurka jo behar dugu, salatu egin behar ditugu, herritik bertatik eragin, gizarteak barneratu dezan posible dela elkarbizitza aniztasunean egitea. Nola edo hala, guztion lana da horretan laguntzea.

Hori guztia dela eta, gaur, martxoak 21, **Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko egunean**, adierazpen honen aldeko arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako geure jarrera agertu nahi dugu. Beste erakunde eta pertsonen ere dei egiten diegu, kultura aniztasunarekin, elkarbizitzarekin eta guztion giza-eskubideekin konprometituta daudela erakusteko. Ea guztion artean geure herria gu denontzako eta etorkizuneko belaunaldientzako toki hobea bihurtzea lortzen dugun.